

39 egunez egun

2012ko maiatza



Beasaingo udal aldikaria

beasain



Beasaingo udala

Udal lanen taldea, Beasain hobetzeko etengabe lanean

2 iritzia 3 udal lanak 4 festen antolaketa 5 Elkarrizketa: Pello Irizar eta Xabier Sarasola
6-7 kontu epaitegiaren ebazpena 8 legealdiko plana 9 gizarte laguntza 10-11 laburrak



Maiatz oparoa

festen antolaketan egiten duten lana bildu ditugu.

Dena den, festak iritsi aurretik, badugu zeregina. Maiatza, hilabete oparoa izatea espero dugu arlo ezberdinetan. Hil hasieran, hurrengo hiru urteotan Beasaingo herria zer izatea nahi dugun erabakitzeko bilera garrantzitsuak izango ditugu herrian. Bilera hauetara parte hartu nahi duen herritar oro gonbidatua dago, denen ekarpenak kontutan hartuko direlako eta guztion parte hartzearekin herri atseginago bat egitea izan behar dugulako helburuztat. Aldizkarian bertan ikus ditzakezu bilera egunak.

Aldizkarian ere, ere bada kezkatzen gaituen gai bati buruzko albistea: kontu epaitegiak 2009 urteari buruzko txostenaren berri emango dugu. Bertan, urte horretan Beasaingo Udalak izandako irregulartasunak azalduko zaizkizue, beti ere, txosten horrek dioenaren arabera.

Bestetik gabe, lanerako eta festaz gozatzeko deia egiten dizuet lerro hauetatik. Era berean, udal gobernuaren izeanean, herriko festak antolatzen lagun-

tzen duten elkarte guztiei gure esker ona azaldu nahiko genieke, euren ekarpenik gabe, zaila izango litzatekeelako festei modu honetan aurre egitea eta horren festa oparoak lortzea. Loinatz jaieran modu aktiboan parte hartzera gonbidatu nahi zaituztet eta jaiak ongi igarotzeko ditzazuela opa dizuet!!

Ya estamos en mayo, y sólo faltan unos pocos días para que comiencen las Loinatz jaiak. Este año se celebrarán del 18 al 27 de mayo, y durante esos días tendremos la ocasión de disfrutar de diferentes actividades. Pero mayo nos depara otras funciones más, que a lo largo de esta revista podreis conocer con mayor profundidad.

Un tema a abordar a principios de este mes será el futuro de nuestro municipio, que se decidirá a través de la participación ciudadana. Otro tema que nos preocupa es el dossier que ha elaborado el Tribunal de Cuentas, donde se recogen las irregularidades acometidas por el ayuntamiento durante el 2009. Felices fiestas!

Maiatza iritsi zaigu, eta maiatzarekin batera, Loinatz jaiak. Maiatzaren 18an hasiko dira aurten, eta 27ra arte, festaz gozatzeko aukera paregabea izango dugu. Festa usaina nabari da dagoeneko. Danbor hotsak entzuten dira elkartetan. Aurtengo danborradarako bi abesti berri ikasi beharko dituzte gainera, Xabier Sarasolak eta Pello Irizarrek moldatuak.

Eskuarteaz duzun aldizkari honetan, bi martxa horiei buruz eta udaletxean

inkesta zein gai landu beharko lituzke legealdiko planak?



Xabier Lasas

Nik uste dut herrian, aparkaleku arazo handia dagoela, zenbait garaitan ez dago aparkatzerik. Gero, umeentzat, beste parke estaliren baten beharra ikusten dut, ze eguraldi txarrarekin ez dugu jakiten nora joan. Bat badago, eta oso ondo dago gainera, baina eguraldi txarrarekin jende gehiegi pilatzen da.



Nerea Garcia
eta Tania Diaz

Gazteentzako lokal gehiago eskatuko genituzke. Musika taldeentzat badaude lokal batzuk, baina gazteok elkartzeko lekuak behar ditugu. Gainontzean herria nahiko ondo dago, eta ez dugu behar handirik ikusten.



Santiago Domeño

En el tema del aparcamiento, hay muchos coches y poco sitio para aparcar. Estaría bien hacer un paso subterráneo o algún puente sobre las vías del tren para acortar distancias. El ambulatorio nuevo nos queda más lejos que el viejo.

En la calle Erauskin, las baldosas están rotas, hay que arreglar la acera.

Beasain hobetzeko etengabeko lanean

Udal brigadetako langileek hainbat mantenu lan egiten dituzte urtean zehar; azken hilabeteetan, lan berezi batzuk egin dituzte

Beasaingo brigadetako udal langileek, ohiko mantenu lanez gain, aparteko zenbait berritze lan egin dituzte azken hilabeteetan. Dr. Fleming auzuneko argiteria berritzea, Usurbeko bidean dauden gurutzeak berritzea, Arriarango hilerriko konponketak eta udal euskaltegian hezetasunarekin ziztuzten arazoak konpontzeko egiten ari diren lanak dira horietako batzuk.

Beasaingo udal brigadetan lau langile ari dira lanean, eta Iñigo Apaolaza

zerbitzu buruak azaldu duenez, «denetarikoa lanak» egiten dituzte. Batez ere, mantenimendu lanez arduratzen dira, «kaleko altzariak, seinalizazioak, argiteria, espaloiak, hilerria... eraikin publikoetan barruko obra txiki batzuk ere egiten ditugu».

Pribatizatze joera

Azken urteetan udal langileei dagozkien lanak pribatizatze joera egon dela diote. «Gu hasi ginenean, 90eko

hamarkadan, 30 bat lagun zebiltzan udal zerbitzuetan lanean; gaur egun berderatzi gara. Lan horiek pribatizatze joera egon da, eta beste enpresa batzuek egiten dituzte orain».

Egoera horren aurrean, udal langileek beraien lanari balioa emango dioten proiektuak hartzeko gogoazaldu dute. «Gu prest gaude beste lan batzuk egiteko, eta badirudi orain udalak baduela joera horrelako lanak guri bideratzeko. Udalak jarrera hori agertu du eta gu gustura gaude, baina krisia dela eta, udalak baliabide gutxi dituela esaten du langile gehiago hartzeko». Zerbitzu publikoetan ahalik eta jende gehien egoteren alde daude, eta lan horiek, «herriko jendearentzat eta batez ere gazteentzako aukera bat» izan behar luketela uste dute. «Lan poltsa bat osatu liteke. Guk hori berreskuratu nahiko genuke, nahiz eta orain dena mugatuta dagoen eta ez dagoen aukera handirik».



Dr. Fleming kalea

Argiteria publiko guztia berritu beharrean zegoen. Udal langileek kanalizazio guztia egin eta arketa berriak jarri dituzte.

Se han sustituido las luminarias existentes por unas más eficientes. El equipo de obras ha ejecutado las bases y arquetas correspondientes a la nueva distribución de farolas.

Usurbeko gurutzeak

Usurbeko bidean dauden hamahiru gurutzeak konpondu eta margotu dituzte; batzuk berriak ere jarri dira.

Se ha actuado en la implantación, reforma y recolocación de varias unidades, así como en el pintado de las 13 unidades.

Arriarango hilerria

Hainbat konponketa lan egin dira. 10 nitxo deshobiratu dira, eta gaizki dauden hobiak konpondu egin dituzte.

Se ha realizado la exhumación de 10 nichos y la recuperación de placas resultantes de los nichos exhumados. También se han hecho otras reparaciones.

Udal euskaltegia

Hezetasunarekin arazoak izan dituzte eraikinaren lehen solairuan, eta ura kanalizatzeko lanak egin eta sarrera konpondu dute.

Había problemas de humedad en la planta baja, por lo que se ha canalizado la filtración existente hacia una arqueta. Se ha cambiado la tarima, ya que la anterior estaba dañada.

Los cuatro trabajadores de las brigadas municipales de Beasain han realizado trabajos de renovación en los últimos meses, a parte de las habituales labores de mantenimiento. Entre otras cosas, han renovado el alumbrado del barrio Dr. Fleming, las cruces que están de camino a Usurbe, han realizado arreglos en el cementerio de Arriaran, y en el Euskaltegi.

Iñigo Apaolaza explica que en los últimos años ha habido una tendencia a privatizar los servicios que corresponden a los trabajadores municipales. «En

•• Los trabajadores de las brigadas municipales, además de las habituales labores de mantenimiento, han realizado varios trabajos de renovación ••

los años 90 había 30 personas trabajando para el ayuntamiento. A día de hoy, somos 9. Muchos trabajos los realizan otras empresas». Los trabajadores municipales han mostrado ganas de desarrollar proyectos que den valor a su trabajo. «Estamos dispuestos a realizar otras labores, y parece ser que el ayuntamiento ahora tiende a darnos trabajos de otro tipo». Además, creen que estos trabajos deberían ser una oportunidad «para la gente del pueblo, y sobre todo para los jóvenes», creando, por ejemplo, una bolsa de trabajo.

Festen antolaketa, elkarlanean

Festak antolatzeko garaian elkarlanean jarduten dute udaleko sail ezberdinek, bai haien artean eta baita herriko elkarteekin ere

Herriko festak antolatzeak lan handia eskatzen du, eta festa batzordeaz gain, udaleko hainbat sail buru belarri lanean aritzen dira, loinatzen jaietan ezer falta ez dadin. Lan hori, elkarlanean eta sail guztien artean koordinatuta egiten dute, gainera.

Berez, festak antolatzea kultura sailari dagokio, baina Gurutze Sukia teknikariak azaldu duenez, «ezinezkoa izango litzateke sail bakar batek dena egitea, horregatik denen artean egiten dugu». Batez ere, udaltzainekin eta zerbitzu arloekin batera egiten dute lanik handiena. Baina horrez gain, herriko elkarteekin ere elkarlanean aritzen direla azaldu du Sukiak. «Beasainen parte hartze handia dago herriko elkarteen aldetik. Gehienekin urteko hitzarmenak ditugu, eta hitzarmen horietan zehazten da elkarte bakoitzak festetan zer egingo duen». Hala, elkarte gastronomikoen,

adibidez, danborrada eta lehiaketa gastronomikoen antolatzen dituzte. Musikari dagokionean ere, herriko taldeen partehartzea ere azpimarratu du. «Taldea kontratatzeaz gain, herriko talde askok parte hartzen du festetan. Txarangak, musika eskolak, txistulari taldeak, trikitilariak... Denek parte hartzen dute.

Zerbitzuak eta trafikoa

Zerbitzuen sailak izaten duen lan nagusia, «festetarako behar diren azpiegiturak muntatzea eta mantentzea» dela azaldu du Jose Inazio Aramendik. Egiten dituzten lanen artean daude eskentokiak jarri eta kentzea, aparkalekuak prestatzea edota argiteria eta elektrizitate hornidura bermatzea. Kale garbiketaz eta kaleko komunak jartzeaz ere beraiek arduratzen dira; «eta festetan txiki-zioeren bat balego, hori konpontzea ere gure lana izaten da».

Hilario Urretabizkaia udaltzain buruaren arabera, beraien egitekoa «kalean egin beharreko ekintzak» prestatzea eta kontrolatzea da. Kaleak moztu, trafikoa kontrolatu, aparkalekuak prestatu, Gernika pasealekuko postuak zaindu... Horrez gain, tabernek gaueko ordutegia errespetatzeaz arduratzen dira. Kaleak ixterako garaian ere, elkarlanean jarduten dute udaleko sailen artean. Trafikoa erregulatzeaz udaltzaingoa arduratzen da, eta beraiek esaten dute zein kale itxi edo ireki behar den; horretarako hesiak, zerbitzuetakoek jartzen dituzte. Eta erdiguneko kaleen sarrerak kontrolatzeko, langabezia duden bospa-sei lagun kontratatzen dituzte urtero.

Festetan izan daitezkeen gertakarien harira galdetuta, Ertzaintzarekin elkarlanean jarduten dutela azaldu du Urretabizkaia. «Festak hasi aurretik biltzen gara, eta lanak banatzen ditugu. Adostuta dugu festei dagozkien gertaerak guk landuko ditugula, baina egon daitezkeen trafiko istripuak edo bestelako gertaerez beraiek arduratzen dira».



Udaltzainak, festak hasi aurretik Bernedoenerako aparkalekuak itxi eta hesiak jartzen.

Varios departamentos del ayuntamiento trabajan junto a la comisión de fiestas para que no falte nada durante estos días tan importantes.

Tal y como explica Gurutze Sukia, «para un sólo departamento es imposible organizar todas las fiestas, y cooperamos entre todos». A su vez, trabajan junto a las asociaciones del pueblo: «en

Beasain se da una gran participación de las asociaciones».

Montar y mantener las infraestructuras necesarias para las fiestas es el principal trabajo del departamento de servicios. Montar escenarios, adecuar aparcamientos o asegurar el abastecimiento de electricidad o la iluminación son algunas de sus responsabilidades.

En cuanto a la policía municipal, su mayor cometido es controlar que las actividades discurran con normalidad, cortar las calles, controlar el tráfico, vigilar los puestos... También se ocupan de que los bares respeten la normativa horaria. Además, todos los años contratan a varias personas para que controlen el acceso a las calles céntricas.

Pello Irizar eta Xabier Sarasola musikariak

“Txanboren eta Martin Irizarren omenezko piezak egokitu ditugu danborradarako”



Este año, en la tamborrada de adultos, se escucharán dos nuevas piezas, ambas compuestas por los músicos beasaindarras Xabier Sarasola y Pello Irizar. Una de ellas, una kalejira, se la han dedicado al maestro Txanbo, y la otra a Martin Irizar, al impulsor de la tamborrada y de la txaranga Koskola.

Con estas dos nuevas piezas, los músicos han querido motivar a la gente que participa año tras año en la tamborrada. Al mismo tiempo, pretenden que la tamborrada tenga más identidad.

Noiz hasi zen danborradarekin duzuen harremana?

Pello Irizar: Danborrada berria hasi zenean, 1978. urtean, anaia zena eta biok hasi ginen zuzendari moduan. Jendea bildu eta danborrada tradizional bat antolatuz gero. Soldadutzara joan nintzenezan eten egin nuen danborradarekin nuen harremana.

Xabier Sarasola: Jendea agian minduko zait, baina ni ez naiz behin ere oso danborrada zalea izan. Gogoan

du danborrada hasi zenean, emakumeek ezin zutela parte hartu esaten zen, eta gazteok boikota egin behar zitzaioela esaten genuen. Agian horregatik izango da, baina ez nau behin ere erakarri. Ikusi bai, urtero ikusten dugu.

Duela urte batzuk, herriko musikarien piezak berreskuratzen hasi zineten.

P.I.: Duela hiru urte, 2010ean, galdetu zidaten ea zer egin zitekeen danborrada berpizteko, jendea uzten ari zela eta. Nik proposatu nien Beasaingoagoa egin behar zela; hemen konpositore asko izan ditugu eta bazen liburu bat, partitura batzuk biltzen zituen, eta hor-

•• Danborrada bertako zerbait izatea nahi genuen, nortasun bat ematea. Jendea motibatuz nahi izan dugu. ••

tik abiatuta hasi ginen kantu horiek berreskuratzen eta egokitzen. Danborrada bertako zerbait izatea nahi genuen, nortasun bat eman.

Aurten bi pieza berri sartuko dituzue; zuek konposatutakoak.

X.S.: Gure irakaslea izan zen Txanboren omenez egindako pieza bat da, aspaldi egin zuena. Kalejira bat da, txisturako konposatutakoa. Pellok esan zidanean asmoa zutela herriko musikak danborradan pixkanaka sartzen joateko, ideia ona iruditu zitzaidan. Baina nahiago izan nuen berak egokitzea danborradarako.

Danborrada zalea ez bazara ere, zure kantu bat aukeratzeak ilusioa egingo zizun, ezta?

X.S.: Ilusioa noski egiten duela. Musika horretarako egiten da, entzuna izateko. Kajoi batean gordez gero, ez du ezertarako balio. Gainera, herriko musikarien piezak berreskatu eta horretarako erabiltzea oso ideia ona iruditzen zait.

Eta beste pieza?

P.I.: Bestea, nire anaia zenaren omenez idatzi dudana da, *Martintxo* izenakoa. Danborradaren eta Koskola txarngaren sortzailetako bat izan zen. Gazterik hil zen bizikletarekin izandako istripu batean, 30 urte zituela. Asko maite zuen danborrada, eta haren oroimen moduan egin dugu.

Eta jendeak, nola hartzen du pieza berriak sartzea?

P.I.: Orain arte jendeak ondo hartu ditu; batzuetan esan digute piezak zail xamarrak direla, edo horrelakoren bat, baina bestela ondo hartzen dituzte. Estrategia hori da, jendeari ikastea kostatzen bazaio, hurrengo urtean entsegu guztietara etorriko da. Jendea motibatuz egin nahi izan dugu, bestela, betikoak jota, ez dira entseguetara etortzen. Baina horrela interes bat pizten da aurretik. Jendea galdezka aritzen da, ea aurten ze pieza berri sartuko dugun; horrek bizia ematen dio.

Kontu epaitegiaren ebazpena dela eta

Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren txostenean ageri diren arau hausteak azken muturreraino ikertu nahi ditu udal gobernauak

Pasa den otsailean Herri Kontuen Euskal Epaitegiak Beasaingo Udalean 2009ko kudeaketaz buruturiko ikerketaren behin betiko txostena argitaratu zuen, hainbat ataletan udalak legediak markatzen duena kontutan hartu gabe jokatu zuela ebartziz.

Gaiaren larritasuna ikusita, udal gobernu honek lehenik gaiaz duen iritzia emango du; bigarrenik, ikerketaren prozeduraren inguruko argipen bat egingo du, eta azkenik, erabaki bat hartzea proposatuko du.

Udal gobernuaren iritzia

Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren iritziz, legedi urraketak ikusten dira hainbat kontratazio burutzerakoan. Batzuk aipatze aldera, haurtzaindegia zabalduan 452.343 euroko gastua zuzenean kontratatu zitzaizen hainbat enpresei, elektrizitate lanak burutzeko egiten zen kontratazioa ez zen lehiaketara atera, Igartza jauregiko lanen azterketa egin zuen enpresari zuzenean esleitu zitzaion kontratua lehiaketara atera

gabe; lan horien burutzea 107.000 euro ingurukoa izan zen.

Beasain Lantzenen kudeaketan ere lege hausteak ikusten dira, igerileku estalien zein kiroldegiko sarrera berriaren lanetan, 5,5 milioi euroko aurrekontutik 9,7 milioi euroko gastura pasatuz lehenen (%77ko igoera), eta 917.975 eurotik 1,4 milioi euroko gastura bigarrenen (%54ko igoera), bi kasuetan, gastua behar bezala justifikatu gabe eta lizitazio prozedura errespetatu gabe. Lan hauetako fase desberdinetan adjudikazio zuzenak egin zitzaizkien kontratista desberdinei. Antzeko zerbaitek gertatzen da kiroldegiko lanen jarraipen eta zuzentzeko kontratuan, 419.804 euroko aurrekontutik 906.408 euroko gastura pasatu zen, lizitazio arauak errespetatu gabe.

Azkenik, aipatzekoa da aurrekontuaren kudeaketan emandako hutsunea, non 10,5 milioi euroko kreditu hazkundea ematen den (aurrekontuaren %65). Gehiago ere badira eta antzeko lege urraketak 2009an ez ezik, aurreko zein



Mari Mar Celaya, Koldo Agirre

hurrengo urteetan ere eman zirela ikusi ahal izan dugu. Beraz, auditoriaren txostena irakurri ondoren, zera ondorioztatu daiteke:

- Kontratazio batzuetan nabarmen urratu da kontratazio legea, zuzenean esleitzu lehiaketa bidez egin behar zena, esate baterako: udal haurtzaindegia, haur parkearen segurtasun zoria, elektrizitate lanak eta Igartza jauregiko proiektuen idazketa batzuk.
- Beasain Lantzenen are nabarmenagoa da zuzenean esleitzeko joera hori: igerilekuen estaltzea, Antzizar kirol gunearen proiektu idazketa eta

El Tribunal Vasco de Cuentas Públicas publicó en febrero el informe definitivo sobre la gestión del ayuntamiento de Beasain en el año 2009. Sentenció que el ayuntamiento actuó sin tener en cuenta la ley al realizar varias contrataciones. Por ejemplo, en el ensanchamiento de la guardería se contrató un gasto de 452.343 euros directamente a varias empresas o la contratación para realizar el estudio del palacio Igartza o varios trabajos de electricidad no salieron a concurso.

En la gestión de Beasain Lantzen también se aprecian infracciones. Es el ejemplo de los trabajos de las piscinas cubiertas y del nuevo acceso al polideportivo. En el primer caso, pasando de

•• Kontratazio batzuetan nabarmen urratu da kontratazio legea, zuzenean esleitzu lehiaketa bidez egin behar zena ••

•• Se ha quebrantado la ley de contrataciones, adjudicando directamente cuando deberían haber salido a concurso ••

un presupuesto de 5,5 millones de euros a un gasto de 9,7 millones de euros (un aumento del %77) y en el segundo caso, de un presupuesto de 917.975 euros a un gasto de 1,4 millones de euros (un aumento del 54%). En los dos casos, sin justificar el gasto como corresponde y sin respetar los procesos de licitación. En el contrato para el seguimiento y la dirección de las obras del polideportivo, de un presupuesto de 419.804 euros se pasó a un gasto de 906.408 euros, sin respetar las normas de licitación.

Después de leer el informe de la auditoría, podemos concluir lo siguiente:

En algunos casos se ha quebrantado la ley de contrataciones, adjudicando directamente cuando debería de haber-



eta Aitor Larburu, gobernu taldeko kideak.

obra zuzendaritzaren esleipena eta ur toboganaren esleipena.

- Kale garbiketa zerbitzuan ere nabarmentak dira kontrataturiko enpresaren aldeko erabakiak: kontratuak handitzea, eta abar, lizitazio prozedura jarraitu gabe.

Guzti honekin eta erakunde ofizial batek egindako auditoria batean oinarrituta, esan dezakegu arau haustek, kudeaketa iluna eta irregulartasunak errepikatu zirela PNVk aurreko legealdian izan zuen kudeaketan.

Legealdi honetako lehen urtea oraindik burutu ez dugun honetan, hainbat al-

diz entzun ditugu PNVko kideak batzuen zein besteen kudeaketarako ezgaitasunaz hitz egiten, edota ezer ez dela egiten esaten. Garbi zegoen parlaren errezeko garai haietan interes asko zeudela Beasainen, eta ikusten da arau hauste larriak egin direla, beraien intentzionalitatea aztertzen hasi gabe. Oso ohituta egon dira inongo oposiziorik gabe lan egiten, urte gehiegi eman dituzte nahierara lan egiten eta horrek eragiten duen inpunitateak eta prepotentziak, okerrak egitera eramán ditu.

Beraz, oraingoz besterik frogatu ez denez, balorazio gehiagotan sartu gabe, argi esan dezakegu PNVren kudeaketa irregulartasun larriez betea izan zela.

Azalpena

Gai honen inguruan, orain arte isilik egon da gobernu taldea, ikerketa burutu arte eta behin betiko txostena izan arte. Otsailaren 16an behin betiko txostenaren berri eman zenean, hainbat informazio oker ere zabaldu zen, alkatearekin kontrastatu izan balira, berehala argituko zirenak, hain zuzen ere.

Jakina da kontu epaitegiak behin behineko txostena atera zuenean, Beasaingo Udalarri alegazioak egiteko aukera eman ziola, eta alegazio haiek prestatu zituztenean, egungo alkatearen sinadura eskatu zen, eta gure aldetik, ez genuen inongo eragozpenik jarri tramite hori egiteko; ez edukiarekin ados ginelako, aurreko legealdian hasitako prozedura bat ez etetekeo baizik.

Beraz, Patxi Plazaola eta Koldo Agi-

Ikerketa batzordea

Gaiaren larritasuna ikusita eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiko ebazpenean esaten denaren arabera, egindako ikerketa sakonkoa baino azalekoa izan dela kontuan hartuta, udal gobernu hau behartuta dago beasaindarron kontuen gardentasuna bermatzera, eta ondorioz, aopatu diren irregulartasunak azken muturreraino ikertzera.

Hori horrela izanik, ikerketa batzordea osatzea proposatuko dugu udalean, Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren lankidetzarekin eta udalaren esku egon daitezkeen tresna guztiekin, gertatutakoaren ardurak noraino doazen zehazteko.

rre, aurreko eta oraingo alkateek jarrera bera dutenik ezin daiteke esan. Batek irregulartasun guzti hauek aitzakia merkeekin estali nahi dituen bitartean, besteak irregulartasun guztiak aztertzeke konpromisoa hartzen du. Horretarako lehen pausoa martxan jarri dugu dagoneko: udal teknikari bat txostenean aipatzen diren espedienteak aztertzen hasi da, datu zehatzagoak ateratzeko eta informazio gehiago izateko.

se sacado a concurso. En Beasain Lan-tzen es aún más visible esa tendencia a adjudicar directamente y en el servicio de limpieza de calles también son evidentes las decisiones favorables a la empresa contratada.

Con todo ello, y basándonos en la auditoría realizada por un organismo oficial, podemos decir que las infracciones de la ley, la oscura gestión y las irregularidades se repitieron en la gestión que llevó a cabo el PNV en la anterior legislatura. Queda patente que en la época dorada del cemento había muchos intereses en Beasain y que se dieron graves infracciones de la ley.

Es también sabido que al terminar el juzgado de cuentas el informe, le dio al

Txostena/Informe

Herri Kontuen Euskal Epaitegiak egindako txostena, ondoko webgunean kontsultatu daiteke:

El informe publicado por el Tribunal Vasco de Cuentas Públicas se puede consultar en la siguiente página web:

- www.beasain.org
- www.tvcp.org/e2012.htm

ayuntamiento de Beasain la oportunidad de presentar alegaciones. Cuando prepararon esas alegaciones, pidieron la firma del actual alcalde, y por nuestro lado, no pusimos ningún impedimento para realizar ese trámite. Eso no quiere decir que Patxi Plazaola y Koldo Agirre, el anterior alcalde y el actual, muestren la misma actitud. Mientras que uno pretende ocultar todas estas irregularidades con excusas baratas, el otro ha hecho suyo el compromiso de investigar dichas irregularidades. También ha dado el primer paso: un técnico municipal ha empezado a investigar los expedientes que se mencionan en el informe, para sacar datos más concretos y para disponer de más información.

Legealdiko plana zehaztuz

Datozen 3 urteetan Udal Gobernu taldeak lehenetsiko dituen ekimenak biltzea, zehaztea eta adostea da planaren helburua.

Uda aurretik, datozen hiru urterako, udal gobernu taldeak zein ekimen lehenetsiko dituen zehaztuko duen plana egitea du helburua Beasaingo Udalak. Plan horrek, arlo edo batzorde desberdinetan martxan ipini nahi diren ekintzak bilduko, zehaztuko eta adostuko ditu. Legealdiko plana, parte hartzean oinarrituko den prozesuaren emaitza izatea nahi du udalak. Izan ere, herritik bideratutako ahalik eta ekimen gehien txertatu nahi baitira planean. Era horretan, ahalik eta herritar gehienengana iritsi nahi du udalak. Horretarako, herritarren, herriko eragileen, udal langileen eta alderdi politikoen iritziak eta proposamenak jaso nahi ditu udalak.

Apirilaren 25ean aurkeztu zituzten legealdiko plana eratzeko prozesuaren nondik norakoak. Koldo Agirre alkateak eta Aitor Larburu zinegotziak hartu zuten parte aurkezpenean. Maiatzarekin batera hasiko da udala bilerak eta batzarrak antolatzen, proposamenak aurkezteko eta jasotzeko. Lau arlotan banatuko dituzte bilerak: herritarren artekoa, auzoetako bileretan; herriko eragileen arteko batzarra; udal langileen bilera; eta alderdi politikoen artekoa. Lau arlo horiekin, bina bilera egingo ditu, maiatza eta ekainan. Legealdiko plana egiteko prozesua ondorengo izango da arlo bakoitzean:

• Herritarrak

Auzoetako batzarrak deituko dituzte. Herriguneko hiru auzo nagusietako herritarrentzat bilera bat egingo da, Igartzan, herrigunean eta Ezkiagan bizi direnentzat. Herrigunetik kanpoko auzoetan bizi direnekin (Matxinbenta, Garin, Astigarreta, Gudugarreta, Arriaran eta Beasain Mendi), beste bilera bat egingo da. Lehenik eta behin, udal gobernu taldeak lehenetsitako gaiak biltzen dituen txostena aurkeztuko du. «Honen helburua, herritarrei legealdiko plana eztabaidatzen hasteko tresna eskaintzea da», dio udalak. Auzoetako bilerekin, edozein arlotako gaien inguruan herritarrek, iritzia emateko aukera sentitzea lortu nahi du udalak. Auzo bakoitzean

Bilerak / reuniones

» **Maiatzak 2:** 19:00etan. batzar aretoan, herriko eragileekin bilera.

» **Maiatzak 3:** 19:00etan. Arriaranen. Auzo txikiekin bilera.

» **Maiatzak 8:** 19:00etan. Batzar aretoan. Herrigunea, Igartza eta Ezkiagakoekin bilera.

» **Maiatzak 9:** 10:00etan. Batzar aretoan. Udal langileekin bilera.

» **Maiatzak 10:** 19:00etan. Udaltxean. Alderdi politikoen bilera.

bina bilera egingo dituzte. Herritarren iritziak biltzeko inkestak ere banatuko dituzte herri osoan, maiatzaren 15ean eta ekainaren 15era arteko epea izango dute herritarrek inkestak udaletxera bideratzeko. Inkestak jaso eta biltzeko, eta informazioa zabaltzeko, postontziak eta panelak jarriko ditu udalak herriko hainbat puntutan.

• Herriko eragileak

Udal gobernu taldeak batzarrerako deia egingo die herriko eragile guztiei. Udal gobernu taldeko kideek eta hauen laguntzaileek hartuko dute parte bilera horretan.

• Udal langileak

Udaleko langileak ere batzarrean bilduko ditu udal gobernu taldeak, eta zinegotziek eta hauen laguntzaileek parte hartuko dute.

• Alderdi politikoa

Alderdi politikoen batzarrak orokorrak izatea nahi du udalak, ez aldekoak. Udalaren eta herri eragileen proposamenak mahai gainean jarriko ditu udalak, beste alderdi politikoen proposamenak jasotzeko.

• Behin betiko legealdiko plana

Plana txostenean bildu eta uztailean, planaren osaketan parte hartu duten guztiei banatu eta azaldu ondoren, datozen hiru urteetarako onartutako legealdiko planaren aurkezpena egingo du udalak.

El gobierno municipal elaborará un plan para los próximos tres años de legislatura. En el citado plan se contemplará los principales proyectos que desarrollará el ayuntamiento.

A lo largo del mes de mayo, los vecinos podrán participar en las reuniones abiertas que convocarán a efecto de analizar y debatir los proyectos existentes. Las reuniones de los barrios, serán el día 3 de mayo, a las 7 de la tarde, en Arriaran (Matxinbenta, Garin, Astigarreta, Arriaran, Gudugarreta y Beasain Mendi). El día 8 de mayo, a las 7 de la tarde, en el salon de plenos del ayunta-

•• Los vecinos podrán participar en las reuniones abiertas que convocarán a efecto de analizar y debatir los proyectos existentes ••

miento, con los vecinos del centro, Ezkiaga e Igartza. En este proceso, los responsables del ayuntamiento, se reunirán, también, con los diferentes agentes sociales, con los trabajadores del ayuntamiento y con el resto de los partidos políticos.

A partir del 15 de mayo, en diferentes puntos del pueblo, se repartirán encuestas para recoger la opinión de los beasaindarras. Se deberán de rellenar las encuestas antes del 15 de junio. Tras un proceso participativo de dos meses, en julio, el Gobierno Municipal presentará el plan definitivo de gestión.

Laguntza teknikoak eskuratzeko aukera

Ezgaitasuna eta mendekotasuna saihesteko, orekatzeko, arintzeko edo desagertzeko tresna eta laguntza ugari dago.

Ezgaituta edo mendeko egoeran dauden pertsonen bizi kalitatea hobetzeko eta eguneroko gauzak egiteko autonomia eskaintzen dute laguntza teknikoak produktuek. Udaleko Gizarte Ongizate Sailean eskatu behar dira. Ondoko laguntzak lor daitezke:

»Babes eta zaintza pertsonalerako eta mugikortasunerako: ohe artikulatuak, eskaren kontrako koltxoak, gurpil-aulki motordunak, aulki bereziak, ibilgailuak egokitzea, bainugelako osagarriak, igotzeko eta lekualdatzeko aparatuak...

»Etxebizitzan irisgarritasunerako: etxe barruko eta etxean sartzeko oztopoak kentzea.

»Komunikaziorako: besteekin komunikatzeko aparatuak.

El objetivo de los productos de apoyo es mejorar la calidad de vida y la autonomía para las actividades de la vida diaria de personas con discapacidad o en situación de dependencia. Más información: Departamento de Bienestar Social. Tipos de ayuda:

»Para la protección y el cuidado personal y para la movilidad: camas articuladas, colchones antiescaras, sillas de ruedas motorizadas, sillas especiales, adaptación de vehículos, accesorios de aseo, aparatos de elevación y de traslado...

»Para la accesibilidad de la vivienda: Eliminación de barreras en el interior del domicilio.

»Para la comunicación: sistemas de reconocimiento de habla, prótesis auditivas....

Ikastaroak / cursos:

Laguntza teknikoetarako buruzko ikastaroa

Maiatzaren 8an eta 10ean, 15:00etatik 17:00etara, udaletxeko batzar aretoan.

Izena emateko epea: maiatzak 4.

Cursillo sobre los productos de apoyo: 8 y 10 mayo, de 15:00 horas a 17:00. En el salón de plenos del ayuntamiento. Inscripción: antes del 4 de mayo.

Adineko pertsonen zainketa zaintzaileentzat ikastaroa

Maiatzaren 29an, 30ean, 31n eta ekainaren 1ean eta 4an, 15:00etatik 17:00etara, udaletxeko batzar aretoan. Izena emateko epea: maiatzak 23.

Cursillo para los cuidadores y cuidadoras de personas mayores: 29, 30 y 31 de mayo y 1 y 4 de junio, de 15:00 horas a 17:00. En el salón de plenos del ayuntamiento. Inscripción: antes del 28 de mayo.

Egoitzetako aldi baterako egonaldiak adineko ezinduentzat

Zaintzaileek atsedena hartzea, eta ohiko zaintzaileak ezin duenean, adineko ezindua laguntzea dira zerbitzuaren helburuak.

Adineko ezinduei zuzendutako zerbitzua da. Beraien etxeetan bizi, baina hainbat arrazoi tarteko, epe zehatz batean ordezko bizileku bat behar izaten dutenei egoitza batean egoteko aukera ematen zaie. Gipuzkoako Foru Aldundiak zerbitzu horretarako itaundutako egoitzak ditu. Urte osoan erabil daiteke zerbitzua, baina eskaera handiena udan izaten denez, uztaileko eta abuzturako eskaerak egiteko epea maiatzean bukatuko da. Egonaldia, gutxienez, 15 eguneko eta gehienez hilabetekoa izango da. Zain-

zaileek atsedena hartzeko aukera izatea, ohiko zaintzaileak ezin duenean, adineko ezinduari laguntza ematea da programa horren helburua.

•• Urte guztian erabil daiteke zerbitzua. Baina uztaileko eta abuzturako eskaerak egiteko epea maiatzaren bukaeran amaituko da ••

ESTANCIAS TEMPORALES EN RESIDENCIAS PARA PERSONAS MAYORES DEPENDIENTES

Este programa se dirige a personas mayores dependientes, que durante un periodo de tiempo necesiten un alojamiento en una residencia, por no poder ser atendidas en su hogar. Gracias a este programa, los cuidadores y las cuidadoras podrán tomar un descanso, garantizando la atención a la persona mayor. La solicitud de este servicio se puede hacer todo el año, pero por ser el verano la época de mayor demanda, las solicitudes para los meses de julio y agosto, han de realizarse antes de finales del mes de mayo.

Musika kalera aterako du Musika Eskolak

Maiatzaren 11rako eta 12rako bi ekitaldi antolatu ditu Musika Eskolak. Maiatzaren 11n, 19:30ean, Gernika Pasealekuko frontoian, kontzertua eskainiko dute Musika Eskolako ikasle gazteek osatutako pop-rock taldeek. Maiatzaren 12rako, berriz, X. Kantaldia antolatu du, 19:30ean. Euskal abestiak eta euskara plazaratzea helburu dutela, Musika Eskolako irakasleek musika tresnak joko dituzte eta herriko hainbat taldek euskal kantuak abestuko dituzte.

Matrikula epea zabalik

2012-2013 ikasturtean Musika Eskolan ikasi nahi dutenek, matrikula epea zabalik dute maiatzean. Ikasle direnek, maiatzaren 2tik 11ra eman behar dute izena; lehenengo aldiz instrumentua aukeratu behar dutenek, berriz,



maiatzaren 14tik 18ra (goizean). Musika Eskolan lehenengo aldiz izena eman nahi dutenek, maiatzaren 28tik ekainaren 8ra izango dute aukera.

La Musika Eskola ha organizado dos conciertos para el día 11 y 12 de mayo. El viernes día 11, a las 19:30 de la tarde, en el frontón de las Pergolas, actuarán los grupos de pop-rock

compuestos por los jóvenes alumnos de la Musika Eskola. El 12 de mayo, a las 19:30, en el frontón de las Pergolas, dentro del festival Kantaldia, diferentes grupos locales, junto a los profesores de la Musika Eskola, cantarán varias canciones. La Musika Eskola quiere recordar que el plazo de matriculación estará abierta en mayo.

Ahokotasunaren jaialdiak Usurbe Antzokian

Beasaingo ikastetxeetan bertsolaritza eta ahokotasuna lantzen dituzte. Bertan egiten duten lana jendaurrean azaltzeko, maiatzaren 8an eta 10ean, ahokotasun jaialdiak egingo dituzte Usurbe Antzokian. 8an, Alkartasuna Lizeoko eta Murumendiko ikasleak arituko dira, 17:00etan eta 17:45ean. 10ean, Andramendi Ikastolakoak eta La Salle-San Josekoak, 18:00etan. Beasaingo bertso eskolakoek ere parte hartuko dute, bi saioetan. Gogoratu, datoren ikasturterako, bertso eskolan izena eman daitekeela maiatzean.

FIESTA DE LA ORALIDAD EN USURBE

» El día 8 de mayo, a las 17:00 y 17:45 de la tarde, festival de oralidad de los alumnos de Lizeo y Murumendi.

» El día 10 de mayo, a las 18:00, festival de oralidad de los alumnos de Andramendi y La Salle-San Jose.



Loinatz jaiak badute kartela

2012ko Loinatz jaien kartela aukeratzeko lehiaketa egin da, eta jendearen artean boto gehien jaso duena, Irene Sarria donostiarraren Punttu-puntun lana izan da, 701 botorekin. Gaztetxoan mailan, Irati Gonzalezen *Hamaika aukera* lana izan da bozkatuena.

Ikasgela asteburuan ere zabalik izango da aurrerantzean

Martxoaren 31tik aurrera, asteburuetan, jai egunetan eta zubietan ere zabalik egoten da Beasaingo udal liburutegiko ikasgela. Bertan sartu ahal izateko, sarbide txartela izan behar da. Zerbitzu hori aipatutako egunetan erabili nahi duenak, liburutegian eskatu behar du informazioa. Larunbat goizetan sartzeko ere sarbide txartela erabili behar da.

A partir del 31 de marzo, la sala de estudios de la biblioteca municipal está abierta los fines de semana, días festivos y puentes. Para ello es necesario tener la tarjeta de acceso. La persona que quiera hacer uso de dicho servicio durante esos días, tendrá que solicitar la información sobre el nuevo servicio en la biblioteca. Los sábados por la mañana también será necesaria la tarjeta de acceso.

Bertsomovieda lehiaketako lanik onenen sariak banatu dituzte Igartza jauregian.

Arrano Kultur Elkarteak Beasaingo Udalaren laguntzarekin antolatutako Bertsomovieda lehiaketako sariak banatu dituzte Igartza jauregian. Sari nagusia bi lanen artean banatu dute, Gabiriako gazteek egindako *Bertso road movie* proiektuaren eta Jon Martinen *Urpeko bertsoak* lanaren artean. Ikusleen saria ere, gabiriarrentzat izan da. Bertso onenak dituen lanaren saria, azkenik, Arriarango Intxaurpe elkarteok irabazi dute, *Intxaur ondotik Intxaurpera* lanari esker. Antolatzaileek, lehiaketan eta sare sozialetan parte hartu duen jende kopurua azpimarratu dute.

Se han entregado los premios a los mejores trabajos que han participado en el concurso Bertsomovieda, organizado por Arrano Kultur Elkartea, con la ayuda del ayuntamiento. El premio principal se ha repartido entre dos proyectos: *Bertso road movie* y *Urpeko bertsoak*. El premio a los mejores bertsos se lo ha llevado la sociedad Intxaurpe de Arriaran, gracias al proyecto *Intxaur ondotik Intxaurpera*.



Dantzari txiki eguna maiatzaren 13an

Lore gazteak (Arrasate), Ereintza (Orereta), Goruntz (Gabiria), Irrintzi-Alai (Legorreta), Iztueta (Zaldibia), Jaintza (Ordizia), Lurra (Urretxu), Oin-Arin (Lazkao), Axari (Idiazabal), Ostar (Beasain) eta Aurtzakako (Beasain) dantzari txikiek hartuko dute parte Beasaingo dantzari txiki egunean. Dolareatik abiatuta, 11:30-13:15 bitartean, desfilea egingo dute herriko kaleetan eta 13:15etan, Loinazko San Martin plazan elkartuko dira.



Marcos Alustizari omenaldia

Beasaingo Udalak omenaldi xumea egin dio 102 urte bete dituen Martin Alustiza Arakamari. Gaintzan jaioa bada ere, Beasainen bizi da. Istorio eta pasarte ugari bizi izan dituen gizona da; 36ko Gerran, Intxortako fronte-an borrokatu zuen. Senidez inguratuta ospatu zuen urtebetetze eguna.

Elkarteen lokaletan obrak egiteko zergen hobariak

La comisión de hacienda del ayuntamiento ha decidido declarar de interés o utilidad municipal, las obras que realicen en los locales en los que desarrollan su actividad, las asociaciones que, en colaboración con el ayuntamiento desarrollen actividades culturales y deportivas. Para ello ha adoptado los siguientes criterios para la concesión en el impuesto sobre construcciones, obras e instalaciones:

- Obras en locales destinados exclusivamente a las actividades culturales y deportivas: 95%.
- Obras en locales no destinados exclusivamente a las actividades culturales y deportivas: 45%.



Segurtasun uhala jartzeko kanpaina

Beasaingo Udaltzaingoak segurtasun uhala eta umeentzako aukiak erabiltzeko kanpaina egingo du maiatzaren 2, 3 eta 4ean. Martxoan egin zuten kanpaina informatiboaren ondoren, orain uhalak edo aukiak behar bezala erabiltzen ez dituztenei salaketak jartzeko hasiko dira.



'Xentimorik gabe' antzezlaneko aktoreak. Argazkia: Nerea Lizarralde



Igartza jauregian

4 ostirala

19:30 'Xentimorik gabe' antzezlan.

5 larunbata

20:00 Kontzertua: Trio Mezzo taldea.

Maiatza

5 larunbata

22:30 Alurr dantza taldearen emanaldia, Usurbe antzokian.

6 igandea

08:00 Mendi irteera: Sagastarrira. Antolatzailea: Aizkorri mendizale elkarte.

8 asteartea

9:30 eta 15:00 'Lotte' filma eskola umeentzat, Usurbe antzokian.

17:00 eta 17:45 Bertsolaritza eta ahozkotasuna. Usurbe antzokian. (Lizeoko eta Murumendiko ikasleak).

10 osteguna

17:30 'Ipuinak eta bidaiak' ipuin kontaketa, udal liburutegian.

18:00 Bertsolaritza eta ahozkotasuna. Usurbe antzokian. (Andramendiko eta La Salle-San Joseko ikasleak).

11 ostirala

18:30 Musika kalean. Antolatzailea: Loinatz Musika Eskola. Gernika pasealekuko frontoian.

12 larunbata

19:30 Kantaldia. Antolatzailea: Loinatz Musika Eskola. Gernika pasealekuko frontoian.

13 igandea

Egun osoan Dantzari txiki eguna. Antolatzailea: Aurtzaka dantza taldea.

Erakusketak

Maiatzaren 4tik 13ra: 'Erretiratuen etxeko tailerretako lanak', Usurbeko antzokiko erakusketa aretoan.

Loinatz jaiak

2012. urteko Loinatz jaiak maiatzaren 18tik 27ra bitartean ospatuko dira.

GOIENIZ
zinekluba

Filma: La costilla de Adán (1949)

Zuzendaria: George Cukor.

Eguna: Apirilak 26

Ordua: 21:00etan

Tokia: Usurbe antzokian.



Filma: El guateque (1968)

Zuzendaria: Blake Edwards.

Eguna: Maiatzak 3

Ordua: 21:00etan

Tokia: Usurbe antzokian.

Filma: La maldición del escorpión de Jade (2001)

Zuzendaria: Woody Allen.

Eguna: Maiatzak 10

Ordua: 21:00etan

Tokia: Usurbe antzokian.



Festetako sukaldaritza lehiaketa.

beasain egunez egun

Argitaratzailea: Beasaingo Udala

Helbidea: Loinazko San Martin plaza

Posta elektronikoa: udala@beasain.net

Telefonoa: 943 02 80 50

Webgunea: www.beasain.org

Diseinua: Bidera Zerbitzuak